

**IDIAZABALGO HAUR ETA GAZTERIA
POLITIKAREN ILDO ESTRATEGIKOAK
Epe motz eta luzerako helburuak**

Haur eta Gazteria Zerbitzua
2006ko apirila



- 1. HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN DEFINIZIOA**
 - 1.1. Haur eta Gazteria Politika kontzeptua
 - 1.2. Gazteria arloan esku hartzeko moduen bilakaera historikoa
 - 1.3. Gaur egungo haur eta gazteria politika EAEn

- 2. HAUR, NERABE ETA GAZTEEN EGUNGO ERREALITATEA.**
 - 2.1. Haur eta gazteen errealitatearen azterketa
 - 2.2. Haur eta gazteen egoera eta beharrak

- 3. IDIAZABALGO HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN HISTORIA LABURRA ETA EGUNGO EGOERA**

- 4. IDIAZABALGO HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN HELBURUAK EPE LUZERA**
 - 4.1. Haur eta Gazteria Politikaren helburuak epe luzean
 - 4.1.1 Helburu zehatza: Haur eta Gazteria Zerbitzua udalean eta udalerrian errotu
 - 4.1.2. Helburu nagusia: Haur eta Gazteria Politika osatzen duten lau programa estrukturalak lantzea
 - 4.1.2.1. Informazio programa
 - 4.1.2.2. Aisia hezitzailea
 - 4.1.2.3. Sustapen programa
 - 4.1.2.4. Emantzipazioa

- 5. IDIAZABALGO HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN HELBURUAK EPE MOTZERA**
 - 5.1. Herritar partaidetzako taldeen proposamenak
 - 5.2. Ildo estrategikoak
 - 5.3. Xedeak
 - 5.4. Idiazabalgo Haur eta Gazteria zerbitzurako plan egitasmoa 2005erako
 - 5.4.1. Lan mahaietan aztertuko diren lehetansunezko ekintzak, 2005 Kudeaketa Plana

- 6. HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAK GARATZEKO TRESNAK**
 - 6.1. Koordinazio tresnak
 - 6.1.1. Udalaren barruko koordinazioa
 - 6.1.1.1. Haur eta Gazteria Batzordea
 - 6.1.1.2. Lan taldea
 - 6.1.2. Haur eta gazteria eragileen arteko koordinazioa: Sare Berezia
 - 6.1.2.1. Sare Bereziaren definizioa
 - 6.1.2.2. Gazteria eragileak
 - 6.1.2.3. Zein eragileena da sarearen gaineko ardura.
 - 6.2. Ekipamenduak



7. HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAK GARATZEKO BALIABIDEAK

- 7.1. Giza baliabideak
 - 7.1.1. Haur eta gazteria teknikaria
 - 7.1.2. Hezitzailea
 - 7.1.3. Informatzailea
- 7.2. Baliabide ekonomikoak



1. HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN DEFINIZIOA

1.1. Haur eta Gazteria Politika kontzeptua

Haur eta Gazteria Politikaren *helburu nagusia da haur, nerabe eta gazteen heziera prozesua, heldutasunera iristeko prozesua eta emantzipazio prozesua erraztea.*

Unean uneko eta tokian tokiko beharrak desberdinak izan daitezkeela kontuan harturik, Haur eta Gazteria Politika bera ere, era desberdinetan definitu liteke testuinguru geografiko eta historiko bakoitzean.

Halaber, esku-hartze publikoa haur eta gazteria arloan desberdina izan da une historikoaren arabera.

1.2. Gazteria arloan esku hartzeko moduen bilakaera historikoa

□ Frankismoa

Frankismo garaian gizarte arazoak bigarren mailako kezka ziren. Aisialdi eskaintza egiten zen nagusiki eta horrekin batera erregimen frankistak Eliza Katolikoarekin batera eratutako gazte erakundeetatik ekintza benefiko-asistentzialak eskaintzen ziren.

□ Aisialdi politikak

Franco hil ondorengo garaiaren hasieran ere aisialdi eskaintza zen nagusi. Hala ere, artean ez zegoen egitasmo hezitzailearik, ezta garapen pertsonalaren inguruko egitasmorik ere. Gazteen arazoei aurre egitea eta irtenbidea bilatzea baino gehiago, arazoak ekiditzearen aldeko politika egin zen.

Garai haietan Euskal Autonomi Erkidegoko Autonomi Estatutua onartu eta, horrekin batera, Eusko Jarurlaritzak gazteria arloko eskuduntzak bereganatu zituen. Eusko Jaurilaritzako Gazteria eta Gizartekintzarako Zuzendaritza ere garai hartan sortu zen. Bestalde, toki mailako politikak ugaltzen hasi ziren.

EAEri dagokionez, 1983 Lurralde Historikoen Legea onartu eta haur eta gazte arloan Lurralde Historikoak eskudunak zirela xedatu zen. Orduz geroztik, Foru Aldundiei gazteria arloko esku-hartzea definitzeko txanda iritsi zitzaion.



□ Gazteria Zerbitzuak

Gazteen hiritar izaera gazteria arloaren inguruko esku-hartzearen planteamenduan kontuan hartzen hasi da; eta, ondorioz, aktibitateen ordeztu, baliabideak edo tresnak eskaintzen hasten zaizkie. Informazio zerbitzuak, aholkularitza zerbitzuak eta aisialdi eskolak garai hartakoak dira.

□ Parte-hartze politika

Gerora, gazteek gazteria politiketan parte hartu behar zutela esaten hasi ziren. Planteamendu horren ondorioz, Gazteria Kontseiluak sortzen hasi ziren, baita diru-laguntzak bideratu eta zenbait kulturetxeren kogestioa martxan jarri ere.

□ Emantzipazio politikak

Gazteria Politika berrien abiapuntua 1985ean dago. Izan ere, urte hura Gazteriaren Nazioarteko Urtea izan zen. Horren ondorioz, gazteria politikaren liburu zuria argitaratu zen non gazteria politika integralen aldeko apustua sustatu nahi zen. Administrazioaren eta gizarte eragileen arteko lankidetzak eta koordinazioaren beharra orduantxe hasi zen sumatzen.

Politika berri hauen ardatza emantzipazioa da, hau da, Gazteria Politika integralen helburua gazteari emantzipaziorako igaroaldian laguntzea eta emantzipazio hori erraztea da. Burutzen diren gazte politikak trantsizio etapa horretan gaztearen ibilbidea erraztea dute helburu, bizi kalitatea hobetuz eta bide batez emantzipazioa ahalbidetuz, horretarako gazteek dituzten beharrei erantzunez: enplegua, etxebizitza, aisia eta kultura, osasuna etab...

Estatuan Gazte Plan integral bat egiten lehena Bartzelona izan zen. Esperientzia hori laster erreferente bihurtu zen gainontzeko komunitate autonomoentzat eta udalentzat. 1999an EAEko I. Gazte Plana egin zen.

□ Politika afirmatiboaren proposamena

Krisialdi ekonomikoak ekarri zituen ondorioetako bat gaztaroaren luzatzea izan zen, lan ezak eragin zuzena izan baitzuen emantzipazioaren atzerapenean. Egoera berri horren aurrean emantzipazioa, hau da, gaztaroaren bukaera, bigarren mailara pasatu da; eta, bere ordeztu, gazteen bizi-kalitatea, hau da, prozesuan eragin behar delako ustea zabaltzen hasi da.



Politika integralen ikuspuntutik gaztaroa igaroaldia da. Politika afirmatiboen aldekoen irudiko, berriz, gaztaroak badu berezko balorerik, landu eta sustatu beharrekoa.

Politika integralak eta politika afirmatiboak kontrajarrita daudelako irudia eman nahi izan da sarritan. Planteamendurik emankorrena, berriz, bi politika motak osagarriak direla proposatzen duena da.

Etorkizunean garatu beharreko Gazteria Politikaren helburu nagusia, gazteei emantzipaziorako tresnak ematean datza, trantsizio prozesua erraztearren eta beraien bizi kalitatea hobetearren. Gazteei trantsizio prozesuan laguntza eskainibehar zaie; baina, ibilbide ezberdinak egongo direla kontutan edukiz, eta gazteria talde homogeneotzat ez hartuaz.

Gazteria Politika zentzu zabal batean ulertuta bereiztu beharko genuke: alde batetik, administrazio publiko estatalak eta autonomikoak egiten duten Gazteria Politika, zeinak eragin zuzena duen gazteen bizi kondizioetan, formazioan, lanean eta etxebizitza moduko gaitan; eta, bestetik, Gazteria Politika sektoriala, hau da toki administrazioko Gazteria Sailak egiten duena. Azken hori gehienetan kultura, astialdia, informazioa eta elkartegintzan oinarritzen da, eta ez du gazteriaren kondizio sozialetan hain eragin zuzena. Beraz, argi dago beharrezkoa direla politika integralen ikuspuntutik lantzen diren emantzipaziorako politikak, interbentzio alternatiboekin osatuta agertzen badira.

Beharrezkoa da Gazteriako lan talde tekniko espezifikoak mantentzea, instituzioa eta gazteriaren (elkartuta zein elkartu gabekoak) arteko interlokuzioa mantentzeko garrantzizko tresna direlako.

1.3. Gaur egungo gazteria politika EAEn

EAEko I. Gazte Plana (1999-2002)

Politika integralen markoaren barruan 90.eko hamarkadaren erdian Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengo Gazte Planaren elaborazioaekin bukatuko zuen prozesua jarri zen abian. EAEko I. Gazte Planaren indarraldia 1999tik 2001era artekoa izan zen.

Gazte Plan honek berak jasotzen duenez Plana “...*gazteen aldeko politika kudeatzeko modu berri...*” bat da, herri administrazioaren maila desberdinen arteko konpromisoaren emaitza den politika modu berria alegia. Gazte Planarekiko konpromisoa hartu zuten erakundeak honakoak izan ziren: Eusko Jaurlaritza, hiru lurraldeetako Foru Aldundiak, hiru hiriburu-udalak eta



EUDEL -Euskal Udalen Elkartea-, beraz, EAEko Herri Administrazioaren Plana izan zen.

Integraltasunaren beharrari erantzuteko I. Gazte Planak bost lan ildo jorratu zituen, hain zuzen ere, gazteen bizi-baldintzetan eragin zuzen-zuzenean duten bost dimentsio nagusiak:

- Lana eta lan munduratzeari
- Irakaskuntza arautua eta ez arautua
- Etxebizitza
- Osasuna eta bizi kalitatea
- Gazteen aisia eta kultura

Planaren abiapuntua izan zen lan ildo horietan eragiteko behar-beharrezkoa zela erakundeen arteko eta erakundeetako sailen arteko koordinazioa: erakundeartekotasuna eta sailartekotasuna.

EAEko I. Gazte Plana egiteko ezinbestekoa iritzi zitzaion, halaber, gizarte eragileek parte hartzeari, planak jaso zituen 85 ekintzetatik asko eta askoren garapenean gizarte eragileek zeresan handia zutelakoan. Gizarte eragileen eta herri erakunde desberdinen arteko gaikako eztabaidaren ondoren, planaren dokumentua bukatu eta honekiko atxikimendua adierazi zuten.

EAEko II. Gazte Plana (2002-2005)

EAEko I. Gazte Planaren indarraldia (1999-2001) bukatu gabe zegoela II. Planari ekitea erabaki zen. I. Gazte Planaren inguruko hausnarketa egin eta gero garbi sumatu zen II. Planak hainbat osagai berri kontuan hartu behar zituela, hiru zehazkiago:

- Baloreen garrantzia azpimarratzea: Planak, neutroa izan beharrean, balore jakin batzuen aldeko apustua egin behar zuelako.
- Planari bultzada berria ematea: bultzada berri hau lau iturritatik etorri behar zen:
 - Gazteen parte-hartzea
 - Gizarte-eragileen parte-hartzea
 - Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Hiriburuetako Udalen parte-hartzea
 - Gainontzeko Udalen parte-hartzea
- Plana berrorientatzea: diagnostiko berria eta, beraz, lan ildo eta ekintza berriak.



Udal gazteria politikaren ikuspuntutik garrantzi gehien duen osagai berria II. Gazte Planak Udalei ematen dien lehen mailako papera da.

II. Gazte Planak ezinbestekotzat jo zuen plana Udaletan garatzea. Hala ere, hori zaildu zezaketen hainbat oztopo identifikatu zituen:

- Toki-Erakundeek gazteen ezaugarri eta beharrei buruz duten ezjakintasuna. Ildo honetan Gazteriaren Behatokia sustatzea lehen mailako helburua izan da azken urteetan.
- Plana “kanpoko”tzat hartzeak dakartzan artikulazio arazoak. Ezinbestekoa iruditu zitzaion, beraz, plana maila guztietan sozializatzeari udalek ere bere egin zezaten.
- EAEko udalerrien arteko desberdintasun geografikoak, ekonomikoak eta soziodemografikoak.
- Udalen barne antolamendua: Gazteria Zerbitzuen estatus, borondate politiko eta baliabide arazoak.

Zailtasunak eta oztopoak gora behera, II. Gazte Planak oso garbi planteatu zuen plana *udaletaratu* beharra, hau da, Plana Udaletan praktikara eraman behar zela. Hori nola egin, ordea, artean ez zegoen behar bezain garbi.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zerbitzuaren planteamendua

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zerbitzuak bere plan estrategikoa egin zuen 2001. urtean. Plan horrek, besteak beste, zerbitzua udaletara birbideratu beharra jaso zuen.

Planteamendu berri honen arabera Foru Aldundiko Gazteria Zerbitzuak hainbat zerbitzu eskainiko dizkie Gipuzkoako Udalei Haur eta Gazteria Politika egiteko. Hona hemen eskainitako zerbitzuak:

- Dokumentazioa eta ikerlanak
- Prestakuntza
- Aholkularitza
- Baliabideen transferentzia

Zerbitzu horiek Gazteria Politikak udalean landu behar dituen lau programa estrukturalak garatzeko eskaintzen zaizkie udalei. Hona hemen lau programa estrukturalak:



- Informazioa
- Aisia hezitzailea
- Sustapena
- Emantzipazioa

2. HAUR ETA GAZTEEN EGUNGO ERREALITATEA.

2.1. Haur eta gazteen errealitatearen azterketa

Gizartea denboran zehar aldatzen den errealitate bat da, eta gazteria gizartearen ispilua da. Duela 15 urteko haur eta gazteek eta gaur egungoek ez dituzte hainbeste ezaugarri komun, bizi diren gizartea etengabeko eraldatze prozesuaren ondorioz bilakatu egin delako. Beraz, gazteen beharrak ezagutu ahal izateko, gizartean emandako aldaketak aztertu beharko ditugu lehenik eta behin:

Gizarte joerak:

Aldaketa demografikoak: bizi itxaropena handitzen ari da, jaiotze tasa jaisten ari da, populazioa zahartzen ari da, migrazio mugimenduak daude. Familian aldaketak: emakumeak lan merkatuan sartu dira, lana eta familia-bizitza adiskidetzeko neurri gutxi jarri dira martxan, haurren eskubideak aitortu eta onartu dira, gazteek familiaren etxeko egonaldia luzatzen dute (koltxoi ekonomikoa eta afektiboa).

Familien egituretan aldaketak: guraso bakarreko familiak, izatezko bikoteak, bigarrenengo bateratzeak, bakarrik bizi diren pertsonak.

Joera ekonomikoak:

Globalizazioa: lanari nazioarteko berrantolaketa eman zaio, ekoizpen sisteman iraultza gertatzen ari da, liberalismo ekonomikoa nagusi da, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak gero eta gehiago erabiltzen dira.

Lan prekaritatea: aldi baterako kontratuak, hirugarren sektorea nagusitzen da, ezkutuko ekonomia handitzen ari da, kualifikatuta ez daudenak enplegutik kanpo gelditzen dira.

Gizartearen dualizazioa: integratuak eta baztertuak banatuta daude, batzuen eta besteen arteko ezberdintasunak handitzen ari dira. Gazteak, emakumeak eta etorkinak dira ahulezi egoera larriago batean daudenak.



Kultura-joerak:

Kontsumismoa eta uniformizazio kulturala. Kultura kontsumo bihurtu da eta leku ezberdinetan produktu berdinak kontsumitzen dira. Identitate kulturala kontsumoaren bitartez lortzen da, plazerra bilatze horretan oinarritzen den sistema hedonista baten testuinguruan.

Kulturartekotasuna. Aldi berean, Euskal Herrian kultura mosaikoa dago, gizarte talde ezberdinetako espresioa den kultura hiritarra: etorkinak, estatuko beste lurraldetako pertsonak, eta abar... Horrek herriko, komunitateko kulturaren zuzen-zuzeneko eragina du.

Gizabanakoaren afirmazioa eta ezberdinak izateko eskubidea aldarrikatzen da, diskriminazio positiboa onartuz.

Indibidualismoa, lehiakortasuna eta merkatuaren logika: gizarte eragile tradizionalak (familia, hezkuntza arautua, ...) protagonismoa galdu dute, eta eragile berriak agertu dira (kalea, adin berekoen taldea, aisialdia, komunikazio hedabideak eta teknologi berriak, ...)

Gizartearen parte-hartzeko moduen aldaketa: sindikatuetan, alderdi politikoetan eta elkartegintzan parte-hartzea jaitsi da eta militantzia desagertu da. Motibazioak aldatu dira (ikastea, erlazionatzea, eskarmentua lortzea, ...) eta gero eta puntualagoa da parte-hartzea, gizarteak gizabanakoengan jartzen duen exijentzia mailak parte-hartze horren egonkortasuna oztokatzen duelako.

2.2. Haur eta gazteen egoera eta beharrak

Gaztaroa luzatu egin da (30-35 urteetara arte) eta emantzipaziorako bide bakarra desagertu egin dela esan dezakegu; hau da, ezin dugu gazteriarri buruz hitz egin, oso egoera ezberdinetan dauden haurrei, nerabeei eta gazteei buruz baizik. Hortaz, ibilbide indibidualizatuagoak aurkituko ditugu, bizi-ibilbide linealak desagertu egin direlako (ikasketak bukatu □ lana topatu □ etxebizitza lortu □ bizi-proiektu pertsonala aurrera eraman).

II Gazte Planak egiten duen analisiaren arabera¹, gazteek beren sozializazioa eta gizarte integrazioa baldintzatzen duten alorretan (lana, hezkuntza,

¹ Eusko Jaurlaritzaren (2002), *EAEko II. Gazte Plana 2002-2005*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.



etxebizitza, osasuna eta aisia) behar bereziak dituzte: langabezia jaitsi da; eta, gazteei ematen zaien lanaren kalitatea eskasa da, aldi baterakoa eta gutxi ordaindutakoa baita (hiritar gazteen erdiaren hileko soldata ez da 600 euro tara iristen). Gainera, ezegonkortasuna eta behin-behinekotasuna dira nagusi.

Etxebizitza lortzea zailago bihurtu da: erosteko prezioak oso altuak dira eta alokatzeko aukerak gutxi dira (25-29 urte arteko pertsonen %20 baino ez da emantzipatu). Etengabeko prestakuntza jasotzea ezinbestekoa da lan-mugikortasunak nagusitutako errealitate batean. Prestakuntza horrek alor ezberdinak ukitzen ditu: edukiak, gaitasunak, informazio-teknologia berriak, eleaniztasuna eta gizarte-gaitasunak. Gizartea balioen krisialdi batean murgilduta dago. Inmigrazioa eta gizarte-bazterkeria ere handitu egin dira.

Beren familiarekiko dependentzia ekonomikoa dute gazteek eta emantzipatu nahi baina ezin dutenen kopurua %70 da (*Euskadiko Gazteriaren inguruko txostena, 2004*). Familiaren sostengua ez da berdina gazte guztientzat, eta familiaren egoera sozioekonomikoak eragin zuzena du gazteek independizatzeko eta gizartean integratzeko dituzten aukeretan, gazte horien ahultasun maila areagotuz.

Esan bezala, emantzipaziorako ibilbideak aldatu dira (ez dira linealak) eta biderkatu: denboran zehar luzatzen dira, ibilbide zatituak dira, konplexuak, “yoyo” formakoak edo “hurrenez hurreneko hurbiltze” ibilbideak direlakoak dira. Emantzipazioa ez da progresio bat eta behin eta berriz gazteak saiatu behar dira lan munduan integratzen. Hurbiltze prozesu horretan, gazte guztiak ez dira leku berdinetik abiatzen. Azkeneko ikerketek² gazteen gizarte bazterketarako gune berria sortu dela ohartarazten digute: prestakuntza eta ikasketa gabezia sakonak dituzten, eta, aldi baterako, eskasak eta komunitatearekiko lotura-sortzaileak ez diren enpleguen artean mugitzen diren gazteek osatutako gunea.

Lanak gizarteratzeko eta gizartean onartua izateko bitarteko gisa daukan tradiziozko egitekoa hausteak (lan merkatuetatik baztertuta egotea, diru sarrera eskasak eta prekariedade ekonomikoa, prestakuntzarekiko azpiokuazioa) gazteak urruntzera bultzatzen ditu; eta, horrela, bizitzaren beste alderdi batzuei ematen diete azkenean garrantzi handiagoa, hala nola, pertsonen arteko harremani. Etorkizunaren proiektua bazter uzten dute, eta lan esparrutik kanpo, aisialdiaren balioa bihurtu da garrantzitsu, gazte identitateen eratzailer gisa lanaren balioak izandako zentraltasunaren kaltetan.

² Gipuzkoako Foru Aldundia (2004), *Gazteei eta Bazterketari buruzko hausnarketa Gipuzkoa 2003. Gaztemira 6*. Donostia.



Haurren egoera eta beharrak

Gaur egungo haurtzaroaren kontzepzioa ez da naturala edo emandakoa. Haurtzaroa aurkikuntza historiko eta sozial 'nahiko berria' da, eta zenbait diziplinarentzat lantzeke dagoen arloa. Oro har, haurtzaroa definitzeko zailtasuna egon ohi da, eta haurtzaroko etapa ezberdinak definitzean berdina gertatzen da. 'Haurtzaroa' modernitatean eraikuntza bat dela aipatzen dutenak ere badira, gaur egun krisialdi batean dagoen kontzeptua dela azalduz.

Haurtzaroan, argi dagoena, zera da: beste adin tartetean bezala aldaketak gertatzen ari dira. Komunikabideen aroan gaudelarik, gaur egungo haurrengana iristen den informazioa helduengana iristen denaren mailakoa da, bere alde positibo eta negatiboak izanik. Haurren autonomia bizkortzen doala dirudi; eta, era berean, gero eta gehiago mantsotzen doa nerabeak helduen munduan sartzeko autonomia prozesua.

Gizarte mailan, haurren bizitzan 'kaleak' bizi espazio bezala duen garrantzia desagertzen ari da, bai diskurtsoan eta bai egunerokotasunean. Haurren espazioak etxea, eskola eta haurrei zuzendutako ekintzak egiten dituzten elkarteek eskainitako lokalak dira. Etxean jolasten dute maiz, eta askotan bakarkako jolasekin. Teknologia berriek aisia eta ikaskuntzarako aukera berriak eskaintzen dituzten gizarte honetan, hezkuntzaren kontzeptu tradizionalaren berrirakurketa bat egitea beharrezkoa da, eta, orain arte, planteatzen ez ziren alderdi batzuk bere barne hartu beharko lituzke. Gaur egun, hezkuntzak bere baitan hartu behar du haurrei gizarteak eskaintzen dizkien baliabideak egoki erabiltzea.

Haurra ez da gizarte aktore errekonozitua, ikusezina da gizartearen begietara. Egoera hori "haurraren ikusezintasuna" izenez ezagutzen dugu. Haurra familia baten barruko partaide bezala azaltzen da, eta ez da subjektu sozial eta individual bezala ikusten. Haurraren ikusezintasun horrek haurraren indibidualtasuna eta besteengatik bereiztua dena ez onartzea dakar. Gurasoen aldetik haurrak gehiegi babesteko joera ere badago; bestalde, horri lehen aipaturiko isolamendu soziala gehitzen badiogu haurren autonomia eta ardurak hartzearen garapenean eragina handia du. Haurren parte-hartzea haien bizitza kalitatearen hobekuntzarako elementu benetan garrantzitsua da garapen psikosozialari begira.

Haurren heziketa prozesuan eragile ezberdinek parte hartzen dute. Familiak gain, eragile garrantzitsuen artean eskola dugu, eta hori ikaskuntza prozesuan haurra sartzeko lehen instituzioa da. Bertan, haurrak lengoaiaren lehen ezagutzak izanen ditu, baita balore, tradizio, ohitura, oinarrizko ezagutza praktikoen berri eta abar. ere. Eskola, gizartean positiboa eta aurrerapenaren



seinale dena bezala ikusten den arren, kasutan kontzeptualki kontrako lekuan kokatzen da. Gizarte mailan hezkuntza gurasoen eskumena bezala ulertzen da, baina guraso askok irakasleak izendatzen dituzte haurren ondoezen arduradun lez. Eskumen delegazio horretan dirau egungo hainbat eztabaiden muinak.

Heziketa formalaz aparte, egun garrantzia nabarmena ematen zaio hezkuntza ez formalaren esparruari, bai eta haurren denbora libre eta aisiari. Eskolaratzeak eta eskolatik kanpoko beste ekintzen areagotzeak sarritan hurrek eguneroko jardunaldian esfortzu handia egitea suposatzen du, lanaldi baten pareko izan daitekeena, ordutegi zehatza, esfortzu intelektuala, ezagutzez jabetzeko epe konkretuak... Era berean, gurasoekin pasatzen duten denbora, eta, batez ere, aisiarako duten denbora murrizten da erabat. Erich Weber-en hitzetan, denbora librearen erabilpen egoki batek pertsonen bizitza erritmoan armonia bat izatea bermatzen du. Denbora librean sozializazio prozesu bat martxan jartzen da, inguruneak eskaintzen duen bizipen eta ezagutzen ondorioz, haurra jokaera jarraibide batzuk bereganatzen joaten delarik. Ondorioz, denbora libreak gizarteratzailea eta hezitzailea beharko luke izan.

Hurrek behar eta ezaugarri zehatzak dituzte, adin tarteen arabera ezberdinak direnak, eta kontuan hartu beharrekoak dira heldutasunerako bide horretan garapen egoki bat izatea bermatu nahi badugu.

Lehen adinean haurrak mundua beraien zentzumenen bitartez arakatu eta imitazioaz erantzuten du; eta, hazi ahala(3-6 urte), helduen munduko balore jakin batzuek dituen kontzientzia bat hartzen joaten da, pentsamendua eta munduarekiko ikuspuntu errealistago bat izanik. Pentsamendu logikoa bereganatzen hasiko da ostean (6-9 urte), garapen soziala eta talde bizitzari hasiera emanik, besteen onarpena eta balorazioa bilatuz. Familiaz gain, lagunarteak ere garrantzia izango du jada. 9 urtetik aurrera eta nerabegarora heldu bitarte (12 urte inguru) taldearen izateak garrantzi totala hartuko du, "gu" kontzeptuak "ni" kontzeptuak baino garrantzia gehiago hartuko du. Pubertaroko ezaugarriak hasiko dira azaltzen, autodeterminazioa esaterako, eta haurra gizabanako bezala sentituko da, eta taldeko partaide era berean.

Hemendik aurrera dagoneko nerabegarozan barneratzen da, nerabea da, eta behar eta ezaugarri propioak izango ditu.



Nerabeen egoera eta beharrak

Gaztaroa luzatu denetik, nerabezaroa (12-17) ere agertu da berezko garai modura, bere pisu propioarekin eta bere ezaugarri bereizgarrieekin: haurrak jadanik ez direnak, baina oraindik gazteak ere ez; identitate bila dabiltzanak, baina oraindik emantzipatzeko bide luzea egin beharko dutenak. Aldaketa garaia da: haurra izatetik gaztea izatera pasa; aldaketa fisikoak, psikologikoak eta mota askotakoak gertatzen zaizkie.

Garapenaren eta heziketaren aldetik, garrantzi handiko garaia da nerabezaroa, bertan identitatea definitzen delako, baloreak integratzen direlako eta sozializazioa bideratzen delako. Hain aro garrantzitsua izanik nerabeak gidatu egin behar dira, heldutasunera bitarteko prozesu horretan lagundu egin behar zaie. Familiatik at askatasunaren bila ateratzen dira nerabeak, errealitatean dauden eta bizitzan inportanteak izango diren zenbait aspektuekin lehenengo harremana posiblea eginez: elikadura, kontsumoa, drogen kontsumoa, harreman afektibo-sexualak, komunikazioa, telebista eta teknologi berrien erabilera eta abar. Helduen ikuspegitik guzti horiek arrisku kontsideratzen dira; baina, autonomia eta garapen pertsonalaren aldetik oso aberasgarria da frogatze momentu hori, gehienetan lagunartean eta aisian ematen dena. Nerabeentzako aisia da beren benetako lekua, bertan erabakiak hartu ditzaketelako helduen inposizioak jasan gabe. Garai horretan berdinen arteko harremanak, lagunartekoak alegia, garrantzi handia hartzen dute nerabeen arteko kohesioa sendotu eta euren arteko autoidentitatea indartzen delarik.

Bai haur, bai nerabeen kasuan, hezkuntzarekiko ardura eta erantzukizuna eragile ezberdinena da, eta lan osagarri bat burutzeko saiakera ezinbestekoa ikusten da. Gurasoen hezitzaile funtzioetan hutsune bat detektatu egin da azkeneko urteotan, ziur aski familian emandako aipatutako aldaketek eraginda. Eskolak, bere aldetik, heziketan “espezializatua” dagoen erakundeak, informazioaren transmisioan oinarritu du bere zeregina eta baloreen transmisioan eta autonomia pertsonala garatzen laguntzera ez da iristen. Gauzak horrela, eskola eta familiatik kanpo gelditzen den esparrua esparru hezitzailea dela onartu beharra dago eta, nolabait, beste eragileen lanaren osagarri izan dadin nahi da. Administrazioaren lan esparrua, beraz, heziketa prozesu horretan laguntzean datza. Alde batetik, nerabeek bizitzako zenbait alorri buruzko informazioa behar dute, eta, beste aldetik, pasibotasunetik parte-hartze aktiborako bidea ibili behar dute beren ekimen propioak aurrera irteteko. Hirugarrenik, aisia hezitzailearen beharra ikusten da, hau da, beti ere haur eta nerabeen eskariak kontuan harturik, astialdian antolatzen diren eskaintzak helburu hezitzailea izateko beharra: gaztetxoek oreka pertsonala lantzea, kritikotasuna bultzatzea, balioen hezkuntza indartzea eta sormena zein ekimen pertsonalari bide ematea.



Nerabeek era esplizituan eskatzen dutena (hautemandako beharrak) hauxe da: ondo pasatzea, libreki hautatzea zer egin, nola eta noiz, eskaintza deigarria eta interesantea izatea, lagunartean gozatzea eta dibertitzea jarduerak egiten diren bitartean, denbora libre gehiago, lagunekin egoteko leku bat; eta, azkenik, arreta, entzutea eta komunikazioa berarentzako erreferenteak diren ereduzko helduekin (gurasoak ez direnak). Gurasoek eskatzen dutena, aldiz, hau da: seme-alaben segurtasuna bermatzea, aisialdian egiten diren ekintzak “probetxuzkoak” izatea, aisia eskaintzaren bitartez “baloreak” lantzea, seme-alabek azaltzen dituzten jarrera arazoak zuzentzea.

3. IDIAZABALGO HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN HISTORIA LABURRA ETA EGUNGO EGOERA

Orain dela urte batzu Idiazabalgo gazteek aisialdirako zuten eskaintza elizak bideraturiko “tiempo libre” deiturikoa zen, eta zenbait urteetan burutu zen arren ez du segidarik izan.

Gaur egun ludotekarekin eta gaztetxearekin kontaktzen du Idiazabalek eta biak Kultur Etxean kokaturik daude.

Idiazabalgo Gazte Asanblada (IGA), 2000 urtean berriz ere mugimenduan jarri zen urte batzu indar gehiegirik gabe egon ondoren aisiarako alternatiba berriak sortzea zutela helburu eta gazteak biltzeko leku baten beharra ikusten zutenez, 2000 urteko abenduaren 1ean sortu zen Idiazabalgo Gaztetxea. Gaztetxeak (IGA) hainbat ekintza antolatzen ditu, bai ekintza propioak eta baita herriko beste eragileekin batera antolaturikoak ere, hala nola, Katea auzoko festa, San Joan sua, goitibehera txapelketa, tertuliak eta hitzaldiak, kontzertuak, gabonetako ekintzak...

Ludotekari dagokionez, 2005 urtean ludoteka baten beharra eta berau bideratzeko eskaintza jaso zen herriko udalean eta proposamena hausnartu eta adostu ondoren, ludoteka martxan jarri zen urte bukaerako. Aldi berean Xapobixi Aisialdi Elkarteak sortu zen Idiazabalen aisia landu eta aisia eskaintza zabalagoa izateko helburuarekin, baita aisialdia modu koordinatuagoan antolatzeko ideiarekin ere.

Udalak, ludoteka kudeatzeko deialdia egin ondoren, Xapobixi Aisialdi Elkartearekin ludotekaren kudeaketa 2006ko ekaina arte hitzartzea adostu zuen.



4. IDIAZABALGO HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN HELBURUAK EPE LUZERA

Haur eta Gazteria politikaren *helburu nagusia* haur, nerabe eta gazteen *heziketa prozesua, heldutasunera iristeko prozesua eta emantzipazio prozesua erraztea da*, beti ere hiritartasun aktiboaren kontzeptutik abiatuz.

Haur eta gazteen prozesu hau errazteko Idiazabalgo Haur eta Gazteria Zerbitzuak, edozein udalek bezalaxe, lau programa estrukturalak osatutako arreta zerbitzua abian jarri beharko luke:

- Informazio programa
- Aisia hezitzailea programa
- Sustapen programa
- Emantzipazio programa

Epe luzean programa horrek guztiak lantzea izan behar da Haur eta Gazteria Politikaren **helburu nagusia**.

Helburu nagusi honetara iristeko ezinbestekoa da Haur eta Gazteria Zerbitzuak honi guztiari erantzuteko behar duen egitura eta antolamendua hartzea. Dokumentu hau bera eta Idiazabalgo Udalak hartutako zenbait erabaki ildo horretatik doaz, zalantzarik gabe.

Hala ere, ezin ahaztu helburu horrek epe luzeko proiektiorik ere baduela. Hau da, Haur eta Gazteria Zerbitzua sortzea epe ertain eta luzean jarraipena beharko duen egituratze prozesu baten lehenengo urrats edo erabakia da. Izan ere, desberdina da zerbitzua sortzea eta zerbitzu horrek udalean nahiz udalerrian dagokion lekua lortzea.

Beraz, helburu nagusira iristeko **helburu zehatz bat** ezarri beharra dago: Haur eta Gazteria Zerbitzua udalean eta udalerrian errotu.

4.1. Haur eta Gazteria Politikaren helburuak epe luzean

4.1.1 *Helburu zehatza: Haur eta Gazteria Zerbitzua udalean eta udalerrian errotu*

Haur eta Gazteria Zerbitzua, haur, nerabe eta gazteei zuzenduriko zerbitzu bat da. Haur eta Gazteria Zerbitzuak lan ildoak finkatu behar ditu, lehenetasunak eta eginbeharrak zehaztuz, hau da, udalerriko Haur eta Gazteria Politika definitu behar du.



Politika hau aurrera ateratzeko beharrezkoak ditu baliabideak:

- Espazialak
- Giza baliabideak
- Ekonomikoak
- Harreman sarea (baliabide iturriak identifikatzeko)

Azkenik hau guztia dinamismoz kudeatzeko beharrezkoa da, gutxienez, erabaki mahai bat: Udal Batzordea. Ez da beharrezkoa espresuki haur edo gazteria gaietarako osatutakoa izatea, baina oso komenigarria litzateke.

Lan eraginkorra izateko haur eta gazteriarri zuzenduriko toki bat (langilearen bulegoa, gazte ekipamendu bat...) identifikatu behar da arreta gune bezala, zuzeneko harremana sustatzeko. Politikak erreferente fisiko bat behar du.

4.1.2. Helburu nagusia: Haur eta Gazteria Politika osatzen duten lau programa estrukturalak lantzea

Lau programak lantzeko orduan genero ikuspegia eta aukera berdintasuna, hizkuntza normalkuntza eta integrazioa zeharkako balore modura ere kontuan hartu behar dira.

- Neska-mutilen egoera eta behar desberdinak kontuan hartu behar dira eskaintza egiteko orduan. Generoak eragina du eskaintzak neskengan eta mutilengan sortaraz dezakeen interes mailan.
- Hizkuntza normalkuntza bultzatzea.
- Eskaintzari buruzko informaziora eta eskaintzara bertara iristeko erraztasunak eman behar zaizkie era askotako zailtasunak dituzten haur, nerabe eta gazteei.

4.1.2.1. INFORMAZIO PROGRAMA

Gazte informazioa haur, nerabe eta gazteen eskura jartzen den beste baliabide bat da, gizartean integrazio osoa lortu dezaten. Gazteen garapen osoan lehen mailako garrantzia duen baliabide honen bidez haur, nerabe eta gazteen arteko aukera berdintasuna bermatu behar da bizitzako une bakoitzean haur, nerabe eta gazteentzat planteatutako erronka desberdinen aurrean.

Haur, nerabe eta gazteen eskura jartzen den baliabidea den aldetik informazioaren edukiak ez ezik informazioa helarazteko estrategiak ere helburu taldearen berezitasunetara egokitu behar dira, informazio premia desberdinak dituzte-eta.



Halaber, gainontzeko programa estrukturalekin gertatzen den bezalaxe, informazio programak lotura estu-estuak ditu aisia eta heziketa ez arautuarekin, sustapenarekin eta emantzipazioarekin. Lotura horietatik guztietatik sustapen programarekin dituenak bereziki azpimarratzeko modukoak dira gazte informazioa definitzen ari garenean. Izan ere, informazio prozesua ez da norabide bakarrekoa, hau da, herri administrazioak (kasu honetan toki administrazioa) gazte informazio programaren ardura izateak ez du inolaz ere esan nahi toki administrazioa gazte informazioaren ekoizle bakarra denik, ezta garrantzitsuena denik ere. Informazio programaren barruan, egindako informazio eskaerei erantzuteaz gain, haur nahiz gazteentzat interesgarria den informazioa ekoizten duten eragile eta aktoreen eta informazio premia dutenen arteko harremana sustatu eta informazioa egoki bideratzeko baliabideak indartu behar dira.

Informazio-zerbitzu baten beharra aztertzerakoan egin beharreko galdera honako hau da: *“Norentzat da zerbitzua?”*. Haur eta gazteentzat dela erantzutea ez da nahikoa, argi baitago ez dela talde homoginoa; eta, beraz, horiengana guztiengana iristeko informazioa hedatzeko estrategia modu bat baino gehiago jorratu behar dira.

Edozein Udalek galdera horri erantzun beharko lioke, eta, ondoren, agerian jarriko lirakeen informazio-premiak asetzeko estrategia egokienak ezarriko lituzke. Izan ere, beti ez da lortzen informazio-premia handiena duten giza taldeengana iristea. Gazte informazio bulegoa edo gazte informazio gunea informazioa lantzeko bi modu edo estrategia besterik ez dira. Ez dira, ez bakarrik, ezta toki eta inguruabar guztietan bideragarriak edota eraginkorrak ere.

Informazio-ekintza hamaika modu desberdinetan gerta daiteke. Udal gazte informazio zerbitzu baten arrakasta informazioa lantzeko modu desberdinez baliatzean datza hain zuzen. Hartara, informazio premia desberdinak dituzten helburu taldeengana iritsi ahal izango da.

Hauxe da, hain zuzen ere, gazte informazio-zerbitzuen arduradunen kezka nagusienetako bat, hau da, zenbait talderengana iristeko zailtasuna, batez ere nerabeengana eta arrisku egoeran daudenengana. Gaiari heltzeko bide zuzenak zenbait ekintza konbinatu beharko lituzke: batetik, giza talde horiek informazio-zerbitzuetara hurbiltzeko eta zerbitzuen erabilera normalizatua izatera iristeko beharrezkoak diren neurriak abian jartzea (publizitate-kanpainak, edukiak hobetzea, etab.); eta, bestetik, informazioa deszentralizatzea, hau da, informazio premia handiena dutenak dauden tokira informazioa eramatea.



Gazte-informazio zerbitzu batek, beraz, hainbat eredu konbinatu beharko lituzke eta elkar oztopatu gabe koordinatu ere. Azken finean, eredu ireki batez ari gara: informazioa premiazkoa den lekura eramango duena eta jakintza baliagarria bilakatzeko estrategiak abian jartzearen emaitza izango dena.

4.1.2.2. AISIA HEZITZAILEA

Heziketa kontzeptuaren ikuspuntua zabaldu da, alde batetik bertikalki zabaldu da, hau da: heziketa jasotzaileak haur eta gazteak soilik izan behar zirela pentsatzen zen; orain, aldiz, pertsona bixita osoan hezi daitekeela pentsatzen da. Bestalde, ikuspuntu hori horizontalki ere zabaldu da, hau da: orain, ez dira eskola eta familia heziketa arduraren jabetza-ondarea duten bakarrak, beste erakunde, bitarteko nahiz eremu batzuetan oinarrituz hezi daitekeela kontsideratzen da (maila desberdinetan eta eguneroko praktikan).

Oinarrian, heziketa kontzeptuaren zabalkuntza honen bitartez, aisian burutzen diren ekimen, jarduera edo aktibitateek gizakion heltze prozesu, gizarteratze eta balore ezberdinen jabetzan izugarriko balioa eta garrantzia dute.

Gaur egun, heziketa kontzeptua modu integral batean ulertzen da: dena da hezitzailea eta bizitzan zehar ematen den prozesua da. Horrekin batera, orain arte heziketan “espezializatu” zegoen erakundeak –eskolak-, edukien transmisioan oinarritu du bere zeregina. Horretaz gain, heziketa prozesuan garrantzi handia duen beste erakundeari -familia-, funtzio horretaz ez dela behar bezala arduratzen leporatzen zaio. Gauzak horrela, eskolatik zein familiarik kanpo gelditzen den esparrua hezitzaile bihurtu nahi du gizarateak eta nolabait beste eragile horien lanaren osagarri izatea.

Administrazioaren lan esparrua beraz, aisia hezitzailearen barruan kokatzen da. Hau da, beti ere haur, nerabe eta gazteen eskariak kontuan harturik, aisialdian antolatzen den eskaintzak helburu hezitzaileak izan behar ditu: gaztetxoek oreka pertsonala lantzea, balioen hezkuntza indartzea eta sormena zein ekimen pertsonalari bidea ematea.

□ Aisia hezitzailearen esparruan udalak egin beharreko eskaintzak, oro har, honako helburuak izan beharko lituzke:

- Gizabanakoa bere errealitatearen aurrean era kritiko batean kokatu.
- Gaur egungo aisiaren errealitateak dituen arriskuez ohartarazi (kontsumoa, drogen gehiegizko kontsumoa...).
- Aisiari lotutako baliabideei buruzko informazioa eman.



- Beharrak eta eskariak asebate. Orokorrean bi behar mota identifikatu ditzakegu:
 - Behar normatiboak, Herri administrazioak, adituek eta, oro har, gizarteak berak definitutakoak.
 - Hautemandako beharrak (eskariak), haur eta gazteek eskaera esplizituaren bidez adierazten dituztenak.
 - Adierazpen sortzailea bultzatu.
 - Haur eta nerabeen arteko harremanak sustatu.
 - Esperientzia apartekoak eskaini norberaren trebezia eta gaitasunak deskubritzeko.
- Haur, nerabe eta gazteei zuzendutako eskaintza: Eskaintza koherentea

Hiru talde desberdin dira eta talde bakoitzarentzat eskaintza berezia egin behar da. Hala ere, eskaintzak koherentea izan behar du, hau da: gazteentzako eskaintza nerabeentzako eskaintzaren jarraipena izan behar da, eskaintza hori haurrentzako eskaintzaren jarraipena izan behar den bezalaxe. Honek esan nahi du eskaintza programatua izan behar dela eskaintza hutsunerik egon ez dadin.

- Eskaintza estrukturala eta eskaintza puntuala

Eskaintzaren programazioak osagai estrukturalak, derrigor egon behar direnak; eta osagai puntualak, unean uneko beharren edo aukeren arabekoak, jaso behar ditu.

4.1.2.3. SUSTAPEN PROGRAMA

Sustapena 5-29 adin tarteko gazteen adierazpena, ekimena eta parte-hartzea bultzatzea da. Haurrak, nerabeak eta gazteak berdinak ez direla ohartuta, sustapena zuzendutako adin taldearen arabera modu desberdinean landu beharko da.

Halaber, gainontzeko programa estrukturalekin gertatzen den bezalaxe, zenbait kasutan sustapen programa eta aisia hezitzaile programa uztartu egiten dira, oso lotura estuak baitituzte. Horren adibide esanguratsuena hurrekin gertatzen dena da. Izan ere, aisia hezitzailearen helburuetako bi sormena eta autonomia bultzatzea dira, sustapena lantzea alegia.

Sustapen lanaren helburu taldea identifikatzeko norbanako mailatik talde mailara doan lerroa irudikatu behar dugu. Lerro horren mutur batean



norbanakoa daukagu; beste muturrean, berriz, formalizazio maila handiko elkarteak dauzkagu.

Bi muturren artean norbanakoak elkartzeko modu asko eta asko daude: batzuk informalak eta beste batzuk oso formalak. Denak dira elkartzeko moduak, baina denak ez dira elkarteak, dokumentu honetan proposatzen dugun definizioari jarraiki. Bi gazte mendira joateko elkartzen direnean “elkartu” egin dira, baina horrek ez du esan nahi “elkartea” direnik; izan ere, eremu pribatuko eta proiektzio publiko gabeko elkartzeko era bat da. Hala ere, sustapen programaren ikuspuntutik batzuk eta besteak interesgarriak dira, baita elkartu gabeko gaztea ere (esaterako, artisau gazte bat edota eskultore gazte bat).

Dokumentu honetan elkartu gabeko gazteari “aktore” deituko diogu; proiektzio publikorik gabeko elkartei “aktore elkartuak” deituko diegu; azkenik, proiektzio publikoa duten elkartei “elkarreak” deituko diegu. Denak dira interesgarriak sustapen lanaren ikuspuntutik.

Sustapen programaren helburua bikoitza da. Batetik, eremu pribatuan dauden protagonistek proiektzio publikora jauzi egitea; eta, bestetik, dagoeneko proiektzio publikoa dutenak indartzea. Oro har, sustapen lanak hiru helburu orokor ditu:

- Haur eta gazteen adierazpen kulturala, politikoa eta soziala bultzatu: haur, nerabe eta gazteei hitza eman maila kulturalan, maila politikoan eta maila sozialean.
- Aktoreak eta aktore elkartuak proiektzio publikora bideratu eta eremu honetan dagoeneko dauden gazte intereseko elkarteak indartu.
- Haur, nerabe eta gazteak, Haur eta Gazteria Politikaren objektu izatetik subjektu izatera bihurtu.

Hiru helburu orokor horiek betetzeko bide desberdinak daude protagonista bakoitzaren kokagunearen arabera. Hau da, sustapena lantzeko metodologiak desberdinak izango dira aktoreekin, aktore elkartuekin edo gazte intereseko elkarteekin lan eginez gero.

Sustapen programak baliabideak eskaintzeaz gain aktoreen, aktore elkartuen nahiz gazte intereseko elkarten parte-hartzea bultzatu behar du. **Sei bide** aurreikusten ditugu sustapen programaren jasotzaileen arabera egokituta.

1. Aisia hezitzailea

Sustapena ez da bakarrik proiektzio publikoa helburu duten aktore eta eragile desberdinekin landu beharreko programa. Proiektzio publikorik gabeko haur eta



gazteengan ere eragitea izan behar du erronka, gazte sormena landuz eta bultzatuz. Hori horrela, sustapen programak eta aisia hezitzaileak sarritan bat egiten dute, bi programak uztartu egiten dira; izan ere, aisia hezitzaileaz baliatuko baikara gazteengan motibazio, zaletasun eta trebezia berriak sortarazteko nahiz bultzatzeko.

2. Baliabide eta euskarrien transferentzia

Hona hemen sustapen programak banatu beharko lituzkeen baliabideen sailkapena:

- Baliabide ekonomikoak (ez soilik ekintza programetzako): maketak grabatzeko laguntzak, arte sormenerako laguntzak, argitalpenetarako...
- Baliabide materialak: bideo kamerak, en ekipoak, ordenagailuak, antolakuntza bulegoa...
- Baliabide espazialak: biltzeko, lanerako eta sormenerako espazioa. Horien balorea harremanetan datza, interes eta egitasmo ezberdinak dituzten gazteak konpartitzeko
- Delegazioa: baliabide trukaketa, kogestioa... Udalak zenbait esparrutan esku-hartzeko duen antolaketa ahalmena gazte intereseko elkarrengan delegatu dezake.

Herri Administrazioaren baliabideak mugatuak direnean ezinbestekoa da lehentasunak ezartzea. Sustapen programa abian jartzeko orduan beste horrenbeste gertatzen da.

Lehentasunak ezartzea gazteria politikaren ardura nagusia duen herri erakundeari dagokiola ahaztu gabe, hona hemen, oro har, kontuan har litezkeen zenbait irizpide baliabideen transferentzia egiteko. Irizpide hauek tokian tokiko errealitatearen eta Gazteria Politikaren epe motzeko helburuen arabera interpretatu behar dira.

- Jardueraren izaera berritzailea eta esperimentalak
- Jardueraren jarraitasuna, helburuak betetzeari begira
- Jardueraren epe ertainerako eta luzerako ikuspegia
- Kanporako irekiera. Beste pertsona batzuei aukera ematea elkartean parte-hartzeko
- Arrisku egoeran dauden haur eta gazteen alde diskriminazio positiboko ekimenak lantzea
- Gizon eta emakume gazteen arteko aukeren berdintasuna bultzatzea
- Euskal nortasun bateratzailea bultzatzea eta gaur egun ahulen dauden kulturako osagai historikoak lantzea



- Emandako zerbitzuaren edo jardueraren edukia eta horrek gizartean duen eragina kontuan hartzea
- Zerbitzuaren edo jardueraren kalitatea. Laguntza handiagoa eman beharko da, zerbitzuaren kalitatearen arabera. Kalitatea definitzerakoan honakoak hartzen ditugu kontuan: zerbitzuak dituen baliabide eskaintza, ordutegia, azpiegitura, arreta, zerbitzuaren moldagarritasuna adin eta sektore desberdinekiko
- Oreka landuz proiektu hasiberri eta kontsolidatuen artean
- Programak inplementatzeko modua. Gazteen inplikazioa, partaidetza, gazteek hartzen duten erantzukizuna, eta abar

3. Prestakuntza eta aholkularitza

Gazteei euren egitasmoak aurrera eramateko beharrezko formazioa jasotzeko aukera ematea eta gai konkretuen inguruko aholkularitza eskaintzea.

4. Informazioa eta dokumentazioa

Datuak, egitasmo ezberdinei buruzko informazioa, beste herrietako gazte biziak, errealitatearen azterketak, dokumentazioa... ekimenak eta egitasmo berriak burutzeko beharko den informazioa.

5. Kontsulta

Udalak aktore, aktore elkartu eta gazte intereseko elkartearen iritzia jasotzea, era inplizituan (iradokizun gutunontzi bat, webgune batean azaltzen den helbide elektronikoa bat...) edo esplizituan (zuzenean galdetuz). Egindako kontsultatik ateratako informazioa prozesatu behar da; hau da, udalak jaso, irakurri eta kontuan hartu behar du.

6. Adostasunera iristea

Adostasunera iristea alderdi biren edo gehiagoren arteko eztabaida da. Udalaren eta, kasu honetan, gazte intereseko elkartearen arteko elkarlana. Aurrekoan bezalaxe, adostasuna, parte-hartzetzat hartu ahal izateko ezinbesteko baldintza, udalean adostutakoa betetzea da.

Azkenik, argi dago sustapen lana behar bezala lantzeko haur eta gazte ekipamendua oso baliabide interesgarria dela aktore, aktore elkartu eta elkartearen arteko harremanak bideratzeko, zuzeneko harremana izateko eta baliabide materialak elkarbanatzeko aukera eskaintzen duelako, besteak beste.



4.1.2.4. EMANTZIPAZIOA

Emantzipazio programa Haur eta Gazteria Zerbitzuetan gutxien landutako esparrua da. Emantzipazio programaren helburua heziketa arautua, lana, etxebizitza; eta, oro har, gaztarotik heldutasunerako igaroaldian lehen mailako garrantzia duten bizi-baldintzak hobetzea da.

Aipatutako heziketa arautua, etxebizitza eta lana bezalako arloetan lehen mailako erantzukizuna eta, zehazkiago, esku-hartzeko baliabide nagusiak dituzten eragileak beste batzuk dira: Hezkuntza Saila, Enplegu Saila, Hirigintza Saila... Horiexek dira honako arloetan zuzenean esku hartzen dutenak.

Hori dela eta, Haur eta Gazteria Zerbitzuari ez dagokio arlo hauetako politikak definitzeko eta abian jartzeko ardura, ez behintzat ardura nagusia; baina, eragile hauekiko koordinazio bide iraunkorrak ireki behar ditu haur eta gazteak politika nuklear hauen subjektu esplizitua ere izan daitezen.

Emantzipazio programa lantzeko orduan oso garrantzitsuak dira bai informazioan, bai sustapenean diseinatzeko diren estrategiak. Nahiz politiken definizioan eragin gutxi izan, informazioaren bidez herriko gazteei interesako gaiak aurkeztu eta aholkatu daitezke eta sustapenaren bidez berriz beraien emantzipazio ekimenak bideratzen lagundu dezakegu.

0

haurrak

nerabeak

gazteak

gazte helduak

29

HEZIKETA PROZESU BAT
(BALOREAK, OHITURA OSASUNTSUAK, ...)

HEZIERA ETA EMANTZIPAZIORAKO BIDEAN LAGUNDU
BALIABIDEAK EMANEZ

ANTZEMAN

BEHAR
EZBERDINAK,
ERRONKA
EZBERDINAK

DISEINATU

INFORMAZIOA
AISIA HEZITZAILEA
SUSTAPENA
EMANTZIPAZIOA

ZERBITZU
ETA EKIPAM
EZBERDINAK
PROGRAMA
EZBERDINAK



5. IDIAZABALGO HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN HELBURUAK EPE MOTZERA

Udalari aurkezturiko lan proposamenean zehazturikoak ditugu epe motzeko helburu eta lan ildoak (2005- 2006). Idiazabalgo herrian gaur egunerarte dagoenari koherentzia eta antolakuntza egitura bat ematea da helburu nagusia: haur, nerabe eta gazteentzako eskaintza ere koordinatu eta koherente batean garatzea.

Helburu nagusi honetara iristeko 5 lan ildo definitu ditugu:

- Udalean gazteria zerbitzua definitu eta egituratu
- Gazteria zerbitzuaren ildo estrategikoak definitu
- Ludoteka zerbitzuaren hausnarketa eta definizioa
- Aisi eskaintzaren hausnarketa egin eta urte guztirako programa diseinatu
- Nerabeei zuzenduriko ekipamendu baten beharrari buruzko azterketa egin

6. HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAK GARATZEKO TRESNAK

Atal honetan Haur eta Gazteria Politika martxan jartzeko behar diren tresnak jorratuko dira: koordinazio tresna eta ekipamenduak hurrenez hurren. Koordinazioa bi mailatan gauzatu behar da: batetik, udal mailan; eta, bestetik, haur eta gazteen bizi baldintzetan eragina duten udalerriko eragileen artean (udala barne).

Lehenengo mailako koordinazioa (udal mailakoa) udaleko Haur eta Gazteria Batzordea eta lan-taldearen bidez garatzen da. Bigarren mailako koordinazioa (udalerrri mailakoa) sare bereziaren bidez landu behar da.

6.1. Koordinazio tresnak.

6.1.1. Udalaren barruko koordinazioa.

6.1.1.1. Gazteria batzordea

"Udalean haur eta gazteria gaiak aztertu eta erabakiak hartuko dituen mahaia dugu Haur eta Gazteria Batzordea. Batzordera deituak izando dira haur eta gazteria politikan zeresana edo interesa duten herriko eragile zein aktoreak, hauen artean era iraunkor batean parte hartuko luketenak hauek dira: gazteria zinegotzia, gazteria teknikaria, alderdi politiko ezberdinetako ordezkariak, gazte antolatutak, aisi elkarteak, herriko hezkuntza eragileak eta udal teknikariak.



Batzordeak informatiboak izateaz gain, guztion arteko adostasuna lortzeko borondatea izango du, hau lortzen den kasuetan gainera erabaki hauek lehenetsiko dira plenoan aurkezteko orduan. Adostasunik ez dagoen kasuetan berriz udal eragileen eskuetan geldituko da eman beharreko erantzuna.

Batzordearen ardurak izango dira, besteak beste: lehentasunak erabakitzea, aurrekontuak aztertzea, plangintzak onartzea, ebaluatzea,..."

6.1.1.2. Lan-taldea

Lan-taldearen beharra

I. eta II. Gazte Planek argi uzten dute haur eta gazteria politika egiteko ezinbestekoa dela eragile desberdinen arteko lan koordinatua. Herri administrazioaren esparruan horrek esan nahi du: haur eta gazteen bizi baldintzetan eragina duten sail edo zerbitzuek (Enplegu Saila, Hirigintza Saila, Kultura Saila, Gizarte Ekintza Saila, Gazteria Saila, Hezkuntza Saila...) era koordinatu batean lan egin beharko luketela *haur, nerabe eta gazteen heziera prozesuan, heldutasunera iristeko prozesuan eta emantzipazio prozesuan* denek eragina dutelako.

Hala ere, badira hainbat esparru Haur eta Gazteria Sailari berezkoak izan ez arren, Haur eta Gazteria Politikaren ikuspuntutik erabat landu beharrekoak direnak: kultura, enplegua, osasuna, etxebizitza, eta abar.

Argi dago, beraz, Haur eta Gazteria Politika Gazteria Sailean egiten dena baino zertxobait gehiago ere badela. Izan ere, udal osoaren gazteekiko konpromiso integrala da, gazteen bizi esparru guztietan eragina izan beharko lukeen konpromisoa alegia.

6.1.2. Haur eta gazteria eragileen arteko koordinazioa: sare berezia

6.1.2.1.Sare bereziaren definizioa

Era honetan ulertuta, sareak berez sor daitezke, helburu komunik gabe (Internet, esaterako). Beraz, eta haur eta gazteria politikaz ari garelarik, sare bereziak helburu bat izan behar du, nahiz eta oso orokorra izan. Beraz, helburu bat izan behar badu, helburu horren sustatzaile bat ere bai.



- Helburua: Haur, nerabe eta gazteen heziera eta emantzipazio prozesua laguntzeko informazio, aisialdi eta heziketa ez arautua, sustapena eta emantzipazio programen bidez era koordinatu eta koherente batean lan egitea.
- Sustatzailea: udala

Toki Sare Berezia, beraz, hauxe da:

Haur, nerabe eta gazteen heziera eta emantzipazio prozesuan laguntzeko helburuarekin udalak sustatutako haur eta gazteria eragileen arteko lankidetzaren sistema iraunkorra. Ondoko programen bidez egingo da: informazioa, aisialdi eta heziketa ez arautua, sustapena eta emantzipazioa.

Sarearen osagaietan aldaketak jazo daitezke: eragile batzuk agertu ala desagertu, harreman motak aldatu, etab. Hala ere, honek ez du eragotzi behar sarearen lana egonkorra eta iraunkorra izatea.

6.1.2.2. Gazteria eragileak

Haur eta gazteria eragileak haur eta gazteria arloan zeresana duten eragile publiko nahiz pribatuak dira. "Eragile" kontzeptua "aktore" kontzeptutik bereiztu behar da. Aktoreak norbanakoak dira. Era honetan gazteak aktoreak dira, eta antolatzen direnean baizik ez dira eragile bihurtzen. Aktoreak, beraz, ez ditugu eragiletzat hartuko.

Gazteria eragileak, bada, honako hauek dira:

- Gazteria arloan erantzukizun gorena duten eragile publikoak (Udala, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Ikastetxe Publikoak...)
- Gazteria arloan zeresana eta erantzukizun maila desberdinak dituzten eragile pribatuak:
- Hirugarren Sektorereko erakundeak, haur, nerabe eta gazteentzat interesgarriak diren elkarteak:
 - ✓ Izaera estrategikoko elkarteak: gazteek osatutako eta gazteentzako eskaintza egiten duten elkarteak.
 - ✓ Izaera orokorreko elkarteak: gazteek osatutako elkarteak, beren jarduera gazteei zuzentzen ez dietenak.
 - ✓ Zerbitzu elkarteak: gazteek osatutako elkarteak, nahiz eta gazteentzat eskaintza berezirik ez egin.
- Enpresa pribatuak (Ikastetxe pribatuak, aisialdi enpresak...)



Aktoreak (norbanakoak) ez ditugu eragilezat hartuko. Sarearen parte dira, baina ez parte-hartzaileak, beren baliabideak partekatu baino gehiago besteen baliabideak erabiltzen dituztelako.

Aktore hauek sare bereziaren erabiltzaile³ zuzenak (haurrak, nerabeak eta gazteak) eta zeharkakoak dira (gurasoak). Sustapen lanaren helburuetako bat da gazte eta guraso batzuk eragile bihurtu eta Sare Bereziaren parte-hartzaileak izatea.

6.1.2.3. Zein eragilerena da sarearen gaineko ardura

Sarearen gaineko ardura herri administrazioarena da (udalarena kasu honetan). Udalak bere sarea sortu behar du eredu desberdinei jarraiki:

- Haur, nerabe eta gazteentzako informazio, aisi hezitzaile, sustapen eta emantzipazio programak eta programa horietan zeresana duten eragileak identifikatuz eta elkarri lotuz (udalerrri handietan)
- Eragileak eta programak sortzea eta elkarri lotzea bultzatuz (udalerrri txikietan).

Sarearen arduraduna izateak zera esan nahi du:

- Sareak egiten duen eskaintzaren irizpideak finkatzea.
- Sarearen koordinazioaren gaineko ardura.
- Sare lanaren ebaluazioaren gaineko ardura.

Horietaz gain, gehienetan, sarearen finantzaketa ere herri administrazioaren ardura da, ez beti baina. Izan ere, gero eta sarriago ari gara ikusten ekimen pribatua ere (Kutxak) haur eta gazteentzako eskaintza finantzatzen ari dela (aisi programak, enplegu programak...).

³ “Erabiltzaile” hitza ez da modu peioratibo batean ulertu behar. Gure sarea “Arreta Sare” bezala definitu badugu, bada arreta hori jasotzen duena erabiltzailea da.



6.2. Haur eta gazte ekipamendua

Zerbitzu, programa eta ekintza ezberdinak garatzeko azpiegiturari deitzen zaio ekipamendua.

Ekipamendua Haur eta Gazteria Politika garatzeko *ezinbesteko bitarteko* bat da eta, beraz, ekipamendua eraiki aurretik politika hori definitu beharko da. Haur eta Gazteria Politikaren helburuak finkatu ondoren, ekipamenduarenak zehaztuko dira. Ekipamendua diagnostiko batean oinarritu behar da beti, hau da, norentzat eta zertarako den ekipamendua aztertuko da.

Ekipamendu bakoitzak bere adin tartekak, helburuak eta zerbitzuak ditu. Lau programa estrukturalak lantzeko orduan erabiltzen diren irizpideak eta metodologia zerbitzu bakoitzaren arabera moldatuko dira.

7. HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAK GARATZEKO BALIABIDEAK

Beharrezko baliabideak helburuen menpekoak dira, hau da, helburuak aldatu ahala litekeena da helburuak betetzeko beharrezkoak diren baliabideak ere aldatzea. Hau dela-eta, helburuen atala berrikustearekin batera berrikusi beharko litzateke.

7.1. Giza baliabideak

7.1.1. LANGILEAK

Maila teoriko batean hainbat profil desberdin bereiz daitezke haur eta gazteria arloko lanean:

- **Haur eta gazteria teknikaria:** Haur eta gazteria teknikaria da udal Gazteria Zerbitzuaren garapenaren arduraduna. Horretaz gain, gazteria eragileekin batera sare lanaren gaineko erantzulea da.
- **Hezitzailea:** Hezitzailea kokatzen da haur eta nerabeei zuzendutako ekipamenduetan eta jarraipena duten aisi hezitzaile zerbitzuetan.
- **Gazte informatzailea:** Informatzailea da haur, nerabe eta gazteei zuzendutako informazio zerbitzuaren dinamizatzailea.

Tokian tokiko errealitatearen arabera, langileen funtzioak ezin izango dira dokumentuan bezala definitu, azken finean funtzio ezberdinak pertsona



berdinaren gain egon baitaitezke. Udalerrriaren tamaina eta udalak dituen baliabideak honako hau definitzeko baldintzak izango dira.

7.1.2. HAUR ETA GAZTERIA TEKNIKARIA

Haur eta gazteria teknikaria da Udal Haur eta Gazteria Zerbitzuaren garapenaren arduraduna. Horretaz gain, gazteria eragileekin batera sare lanaren gaineko erantzulea da.

7.1.2.1. Funtzioak

Haur eta gazteria teknikari baten **funtzio nagusiak** hauek dira:

- Haur eta gazteen beharrak ezagutu
- Udal Haur eta Gazteria Zerbitzuaren lana planifikatu: ildo estrategikoak definitu. Epe motz, ertain eta luzera planifikatu.
- Programa estrukturalak garatzeko estrategiak definitu eta ekintzak zehaztu.
- Zerbitzu eta ekipamenduen diseinua, planifikazioa, kudeaketa eta ebaluazioaren gaineko ardura hartu.
- Eragileen arteko koordinazioa bultzatu, udal mailan nahiz herri mailan; eta, eskatzen denean, beste administrazio batzuekin ere bai.
- Lan guztietan integrazioa, genero berdintasuna eta euskararen normalizazioa landu.
- Ebaluazioa

7.1.3. HEZITZAILEA

Hezitzailea honako zerbitzuetan kokatzen da: haur eta nerabeei zuzendutako ekipamenduetan eta jarraipena duten aisia hezitzaile zerbitzuetan.

7.1.3.1. Funtzioak

Hezitzaile baten **funtzio nagusiak** hauek dira:

- Haur eta nerabeen behar eta eskariak ezagutu.
- Ekipamenduan garatu beharreko programa (informazio, aisia eta heziketa ez arautua eta informazioa) eta zerbitzuak planifikatu eta kudeatu.
- Zerbitzu eta programak ebaluatu.
- Lan guztietan honakoa landu: integrazioa, genero berdintasuna eta euskararen normalizazioa.
- Udalarekin koordinatu
- Herriko beste eragile eta zerbitzuekin koordinatu



7.1.4. INFORMATZAILEA

Informatzailea da haur, nerabe eta gazteei zuzendutako informazio zerbitzuaren dinamizatzailea.

7.1.4.1. Funtzioak

Infomatzaile baten **funtzio nagusiak** hauek dira:

- Gazteen informazio beharrak ezagutzea
- Beharrei erantzuteko informazioa egokitua prestatzea. Informazio orokorra eta tokian tokikoa izango da.
- Informazioa haur, nerabe eta gazteentzat eskuragarri jartzea
- Informazio zehatz bat jasotzeko bideak eskaintzea.
- Nerabe eta gazteei euren kabuz informazioa lortzen irakastea.
- Lan guztietan honakoa landu: integrazioa, genero berdintasuna eta euskararen normalizazioa.
- Udalarekin koordinatzea.
- Herriko beste eragile eta zerbitzuekin koordinatzea.
- Ebaluazioa

7.2. Baliabide ekonomikoak

Proposamenetatik abiatutako planifikazioak aurrera eramateko beharko diren baliabide ekonomikoak bermatu beharko dira

